

TAILERRAK EKITALDE (UDALASREA21):

2016/05/31

Tokia: Ihobe

Iraupena: 2 ordu eta erdi

Parte hartzaileak

Izena	Udalerria
Aitor Larruzea Abad,	Durangoko Udala
Benjamin Palacios Diaz,	Ermuko Udala
Rebeca Seco	Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco- Ingurumen Osasuna
Ruth Uncella Basabe	Cuadrilla de Salvatierra-Aguraingo kuadrilla
Amaia Albeniz	Larrabetzuko Udala
Ivan Espinosa Pérez	Durangoko Udala
Igor Zorrakin Pérez	Durangoko Udala
M ^a Mar Alonso	Ihobe

Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintza eta Hirigintzako zuzendaria
Jesús M ^a Erquicia Olaciregui	Lurralde Antolamendu eta Planeamendurako Zerbitzuko burua

Izena	Kargua
Rafael Sanchez Guerras	Arabako Lurralde Antolamenduko burua

Laguntzaile teknikoak

Izena	Enpresa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru

Aurkezpena

Fernando Uriondo Ispizua Lurralde Plangintza eta Hirigintzako zuzendariak azaldu duenez, LAGen (Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak) berrikuspenak 3 urte inguru iraungo du, eta saiatu egingo dira administrazio-izapidearen une nagusiek (hasiera, aurrerapena, hasierako onespina eta behin betiko onespina) eta Euskal Hiria Kongresuaren hurrengo hiru edizioek bat egin dezaten (kongresu hori azaroan egiten da, urtero). Parte hartzeko prozesuak esparru bi dauzka: gizartearen parte-hartzea eta erakundeen parte hartzea. Prozesua 2015eko azaroan hasi zen, eta, orduetik, erakundeen eta gizartearen on-line partaidetza-prozesuak lantzen ari dira; gizartearen aurrez aurreko partaidetza-prozesua 2016ko martxotik azarora bitartean egiten da, LAGen berrikuspeneko aurrerapen-agiriaren aurretik (agiri hori 2016 Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko da).

Tailerrerako lan-ildo hauek proposatu dira:

1. LAGak, LAGen inplikazioak eta oinarrizko agiriaren proposamena azaltzea
2. Lan-dinamika azaltzea
3. Tailerraren emaitzak

LAGak, LAGen inplikazioak eta oinarrizko agiriaren proposamena azaltzea

Jesús M^a Erquicia Olacireguik azaldu du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko 4/1990 Legeak, 1997an onartutakoak, EAEko lurralde-antolamenduko esparru juridikoa ezartzen duela eta lurralde-antolamenduko tresnak definitzen dituela. Horrela, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG) erreferentziako esparrua dira lurralde-antolamendurako eta espazio eta lurraldeen antolamendurako. Jarraian, LAGek lurraldean eta hiri-plangintzan duten eraginak adierazi ditu. Horren ondoren, Eusko Jaurlaritzaren lurralde estrategiaren ikuspegia jasotzen duen oinarrizko agiria aurkeztu du (ikuspegi aurkezpena).

Lanerako dinamika azaltzea.

- Talde-lana (2h): pertsona asko bertaratu direnez, talde bakar batean lan egitea eta bi gai lantzea erabaki da. Gai bakoitzaren barruan azpigaiak daude, eta, beraz, pertsona bakoitzak, lehendabizi, azpigai bi hautatu beharko ditu, eta, gero, egiten zaion galderari erantzun beharko dio. Horretarako, panelak egongo dira, eta haietan, landu nahi diren ideiak daude, azpigai bakoitzerako gida-galderekin batera. Horretaz gain, laguntzako panel batean, landu nahi duten gaiari buruz oinarritzko agiriak jasotzen zituen ideiak ageri dira. Pertsona bakoitzak beste guztiei azalduko die zer ideia, oinarritzko alderdi eta abar landu nahi duten aukeratutako azpigaian. Ideiak azaldu ondoren, beste parte-hartzaileek ideia gehiago proposatu ahal izango dituzte azpigai horri buruz.

Tailerraren emaitzak.

Hauek dira tailerraren emaitzak:

1. Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

- 1.1.1. Hondatutako inguruneak ahalik eta gehien babestea.
- 1.1.2. Jarduera ekonomikoa ere funtsezkotzat jotzen da paisaia mantentzeko, baina beharrezkoa da jarduerak kontrolatzea.
- 1.1.3. *Baldintza bereziak ezartzea* (ingurunearen babesaren ingurukoak) jarduera ekonomikoak ezartzeko.
- 1.1.4. Enplegu berdea, kontserbatu edo/eta zaindu nahi diren aldeetan jarduera ekonomikoak ezartzeko alternatiba gisa.
- 1.1.5. Ibaiak eta ibaiertzak lehengoratzeko (konektagarritasuna).
- 1.1.6. Hondatutako paisaiak, batez ere, hirien periferian, lehengoratzeko diru-laguntza eta inbertsioen politikak sustatzea, eraikuntzak eraitsiz barne.
- 1.1.7. Paisaia baliotsuetatik etekin ekonomikoa lortzea, turismoko azpiegiturak sustatuz (bide berdeak, landa-etxeak, seinaleak, argitalpenak...).
- 1.1.8. Turismo iraunkorra sustatzea.
- 1.1.9. Paisaiak azpiegitura eta/edo jarduera berrietan duen eragina ebaluatzea.
- 1.1.10. Oso hondatuta dauden paisaiak lehengoratu eta hobetzea.
- 1.1.11. Paisaia zeharkakoa dela jotzea, hau da, hainbat alderdi barne hartzen dituela: ingurumena, asentamenduak lurraldean, biztanleriaren dinamikak, natur ondarea, ondare eraikia, irudia, oroimena...
- 1.1.12. Identitate-paisaien garrantzia nabarmentzea.
- 1.1.13. Paisaiaren azterlana, lurzoru berrien artifizializazioaren aurrekoa.

1.2. Naturagune babestuak

- 1.2.1. Jarduera ekonomiko jakin batzuekiko bateragarritasuna ahalbidetzea, inguruko biztanleria mantentzeko, eta, horrela, jabetza pribatuak espazio horien kontserbazioan laguntzeko eta abandono-egoerak saihesteko.
- 1.2.2. Egiturazko ikuspegia behar da erabakiak hartzeko. Igarobide/espazio babestuen ikuspegiak egiturazko ikuspegia izan beharko lukeela uste da, konektagarritasun ekologikoari eusteko.
- 1.2.3. Udalerri batzuen zailtasunak ekintza-planetan zehaztutako babes-ekintzei ekiteko.
- 1.2.4. Balio handiagoko *irlak*, baina ingurunearena baino balio gutxiagokoak, espazio babestuen artean (babesaren beharra konektagarritasuna hobetzeko).
- 1.2.5. Biztanleei espazio horien berri ematea eta duten balioa azaltzea.
- 1.2.6. Biztanleek naturaguneak baloratu behar dituzte, bai eta haietaz gozatu ere.
- 1.2.7. Espazio horien balio turistikoa nabarmentzea.

1.3. Igarobide ekologikoak

- 1.3.1. Konektagarritasun handiagoa bilatzea, naturaguneen arteko "lotura-eremuan" gutxieneko babes neurriak aplikatuz.
- 1.3.2. Funtsezkotzat jotzen dira naturagune babestuak mantentzeko, baina kontu handiz ibili behar da LPS, LPP eta sektore-legeen artean gertatzen diren kontraesanekin. LAGen onespenuak argitu beharko lituzke kontraesan horiek, plangintza errazteko.
- 1.3.3. Ibaiak aprobetxatzea eta sustatzea konektagarritasuna errazteko, eta ibaiertzetan esku hartzea.

1.4. Azpiegitura berde integratua

- 1.4.1. Tokikoaz gain, beste eskala batzuk kontuan hartzea. Hiriek udalez gaindiko sarearekin lotu behar dituzte berdeguneak, eta hori gauzatzeko modua eduki behar dute. LAGek azpiegitura berdeen sare bat jartzen dute eskura, eta gero, LPPak haiek zehaztu eta sakondu beharko lituzke, geroagoko fase batean HAPOk egingo duen bezala. Helburua espazio isolatuen kontzeptuak gainditzea da.

1.5. Klima-aldaketa

- 1.5.1. Plangintzako tresna desberdinen ikuspegi integrala, klima aldaketaren analisia eta neurrien ekarpena barne.
- 1.5.2. Plangintzan energiaren analisi zenbakarria ezartzea.
- 1.5.3. Analisia fidagarria eta zorrotza izan beharko litzateke, eta ez administrazio izapide huts bat.
- 1.5.4. Enplegu berdea sustatzea.
- 1.5.5. Konektatutako azpiegitura berdea. Ikuspegi integrala.
- 1.5.6. Energia-errehabilitazioaren helburuen gutxieneko kuotak ezartzea.

- 1.5.7. Garrantzitsua da egokitzapenaren ildotik lan egitea, eta LAGek lehentasunak ezarri beharko lituzkete.
- 1.5.8. Garrantzitsua da ekonomia-sektore zehatzetan duen eragina jakitea eta alternatibak bilatzea.
- 1.5.9. Energia-eraginkostasunaren arloan, LAGek helburu lotesleak ezartzea proposatu da.
- 1.5.10. Energia-aztarna ekologikoaren analisisa (lurraldean bertan, hau da, kontsumo-lekutik hurbilago, dauden lehengaien kontsumoa sustatzea).
- 1.5.11. Energia-eraginkortasuna hobetzea sustatzen duten jarduerak administrazioarentzat eta partikularrentzat.
- 1.5.12. Mugikortasun-politiken koordinazioa administrazioen artean.

1.6. Ingurune fisikoaren antolamendua

- 1.6.1. Diagnostiko baten beharra sumatzen da (oro har, LAGen gai guztietarako).
- 1.6.2. Beharrezkoa da ingurunea sakon ezagutzea.
- 1.6.3. Gune anitzeko hirien ereduaren arabera, ingurune fisikoa "gainontzekoa" da beti.
- 1.6.4. Garrantzitsua da lurzoruaren egokitasun mapa egitea (nekazaritzako ahalmena, sare hidrikoa...)

2. Zeharkako gaiak:

2.1. Genero-ikuspegia, osasuna, euskara

- 2.1.1. Generoaz baino, hirigintza inklusiboaz hitz egitea egokiagoa dela proposatu da; are gehiago, goragoko eskala batean, lurralde osasuntsu/inklusibo eredu bati buruz hitz egitea proposatu da.
- 2.1.2. Udalez gaindiko ekipamendu-beharrizanen identifikazioa eta lokalizazio loteslea LPPan, irizpide objektiboen arabera.
- 2.1.3. Osasuna hobetzeko, ekipamenduen sare osasungarri bat eta ur- eta aire-kalitatea behar dira.
- 2.1.4. Biztanleen artean mendetasuna duten pertsonen kopurua handituko dela kontuan hartzea plangintzan.
- 2.1.5. Generoa ez ezik, jatorria, adina... ere kontuan hartzea plangintzan.

2.2. Lurraldeen elkarrekiko erlazioa

- 2.2.1. Garrantzitsua da lurralde mugakideen artean (Kantabria, Errioxa, Nafarroa...) mugikortasunari buruzko azterlan bat egitea, bizi garen mendetasun soziala aintzat hartuta.
- 2.2.2. Txartel bakarra eta herrien arteko konexioa kontuan hartzea (batez ere, landaguneetan).
- 2.2.3. EAEko lurralde konexioa. Arlo funtzionalean elkarguneak falta dira PTPak garatzeko. PTPa denontzako elkarrizketarako mahaia izan beharko litzateke, baina inola ere ez da inposatu behar.

- 2.2.4. Udalerrien artean ez dago adostasunik arlo funtzionalaren ikuspegiari buruz. Udallerriak lehian daude arlo askotan, plangintza arloa barne.
- 2.2.5. LPPa berrikusten denean, garrantzitsua da kontuan hartzea eta adieraztea LAGak nola islatu diren LPP horretan.
- 2.2.6. Lurralde-politiken ikuspegi integrala.
- 2.2.7. Ondoko komunitateen artean kontseiluak sortzea, eremu mugakideetako gaietan (egiturazko gaiak ez) adostasuna lortzeko.
- 2.2.8. Trenbide-azpiegituren eta errepide-sarearen plangintza.
- 2.2.9. Garraiobide publikoaren kudeaketaren hobekuntza.

2.3. Parte-hartzea eta gobernantza

- 2.3.1. Garrantzitsua da gizarte-eragileek lurralde-ereduari buruzko eztabaidan parte hartzea.
- 2.3.2. Komunitateko sektoreen partaidetza aktiboa behar da lehenengo faseetan.
- 2.3.3. Kontsultarako ez ezik, erabakiak hartzeko ere izan beharko litzateke partaidetza.
- 2.3.4. Beharrezkoa da hartzen diren erabakiak gardenak izatea eta gizarteratzea.
- 2.3.5. Gaur egungo sistema baliozkotzat jotzen da, eta, demagogian erori gabe, hobetu daitekeela uste da. Hartzen diren erabakiak gehiago ezagutarazi eta azaldu beharko lirateke.